

Uhartean kalteak izan dituztenak eta bananaren sektorea babestuz**EROSKI-K 435.000 EURO BAINO GEHIAGO BILDU
DITU PALMAKO SUMENDIAK ERASANDAKOEI
LAGUNTZEKO ELKARTASUN KANPAINAN**

- 0,10 euro eman ditu dohaintzan Eroski Natur markarekin bere sarean urrian saldu den kilo banana bakoitzeko
- Bezeroek borondatezko dohaintzak egin dituzte ordainleketan uharteko herritarrei laguntzeko
- EROSKI k eta haren bezeroek bildutakoa Gurutze Gorriak bideratuko die kaltetunei
- EROSKI 300 nekazari txikirekin baino gehiagorekin aritzen da Palman

Elorrio, 2021eko azaroaren 8a.- [EROSKI](#) k eta haren bezeroek 435.000 euro baino gehiago eman dituzte Palmako Cumbre Vieja sumendiak erasandakoen alde, orain hilabete bere sare komertzial osoan martxan jarritako larrialdiko elkartasun kanpainari esker. EROSKI k bildutakoa Gurutze Gorriak bideratu du, hura ari baita zuzenean laguntzen ezbeharreko honek jotakoak.

EROSKI k bi ekimen gauzatu ditu kanpaina berean. Batetik, jendea animatu du Kanarietako bananak kontsumitzera eta hala bananaren sektoreari eta hondamendiak erasandakoei laguntzera; alde horretatik, 0,10 euro eman ditu dohaintzan Eroski Natur markarekin saldu den kilo banana bakoitzeko. Bestetik, bezeroei dei egin die borondatezko dohaintza bat egin dezaten ordainleketan, horretarako mekanismo bat egokituta.

"Horrelako ekimenez erakusten dute gure bezeroek konpromiso indartsua dutela behar handiena dutenen alde. Hori dela eta, EROSKI k eskerrak eman nahi ditu, oroz gain, Palmako herritarren aldeko elkartasun deialdian gure kontsumitzaileek izan duten inplikazio handiagatik eta eman dioten erantzunagatik, horrek oinarrizko elikagai eta ostatu beharrak estaltzen lagunduko baitie kaltetu direnei", adierazi du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKI k AGBa duen Kanarietako 12,5 milioi kilo banana inguru merkaturatzen du urtean. 2015etik EROSKI Natur markarekin ere saltzen ditu, eta urtean 5 bat milioi kilo erosten du. AGBa duen EROSKI Natur saileko Kanarietako bananaren %95 Palmako uhartetik dator; zehazki, 325 nekazari txikiren plantadietatik.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Prentsa oharra

"Kanarietako banana da gure bezeroek gehien estimatzen dituzten produktuetako bat, bai kalitateagatik eta bai zaporeagatik. Sumendia izugarri ari da erasaten plantadietan eta azpiegituretan, baina Palmako banana jatea segurua, osasungarria eta goxoa da oraindik ere", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)